

ABERRI EGUNA 2008

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA. ONGIZATE ESTATUA INDARTZEA. GIZARTE- DESBERDINTASUNEN AURKAKO BORROKA.

2008ko Aberri Eguna erronka eta itzaropen banarekin ospatzen dugu. Erronka bat, erresistentziak gainditzeko eta gure herrian elkarbizitza bermatuko duen normalizazio politiko eta bake eszenatoki baterantz behin-betiko aurrera egiteko. Eta itzaropen bat: aurten, euskal herritargoak kontsulta batean berretsi ahal izango duen marko juridiko-politiko berri baterako akordio baten bitartez, bide horretan aurrerapausu atzeraezin bat emango dugulako itzaropena.

Gaur, hain adierazgarria den data honetan, Eusko Alkartasunak herritarren eta herritarrentzako bere nazio proiektua berretsi nahi du. Erabaki nahi ez ezik, erabakitze eskubidea ere badu euskal gizarteak, eta bere erabakia, dena delakoa, gure Herriaren marko juridiko-politikoari eta bere Institutioen egituraketari buruzkoa, errespetatua izan dadila ere bai. Marko instituzionalari dagokion egoera, gainera, benetan larria da Nafarroan zein Iparraldean. Nazio bat, Justizia Sozialean, pertsona guztien arteko benetako berdintasuna bermatzeko, eta giza-eskubideen, pertsona guztien eskubide guztien errespetuan, sustapenean eta defentsan oinarriturik.

Modu ireki eta integratzaile batean ulertzen dugu herria. Ez dugu ez mugarik ez bazterketarik nahi. Eusko Alkartasunak aniztasunaren aldeko apustua eta autodeterminazioaren aldeko jarrera argia berresten ditu gaur harrotasunez, hori herritarren oinarrizko eskubidea delako, edozein interes politiko, ekonomiko, elektoral edo alderdikoiren gainetik.

Polarizazioak markatuta eta berriz ere eskubideak eta askatasunak mugatzen dituen legedi baten ondorioek kutsatuta egon diren hauteskunde orokorren ostean, Eusko Alkartasunak EAeko herritarrek emandako mezua entzun du eta euskal gizartearen borondate askea errespetatzeko exijitzen duen proiektua argitasunez, gardentasunez eta zintzotasunez defendatzeko konpromisoari eusten dio. Modu berean Iparraldean egindako hauteskundearen mezua ere entzun dugu; bertan Euskal Herria Bai koalizioaren barruan parte hartu du Eusko Alkartasunak eta boz abertzaleen igoera nabarmena izan da. Eta Nafarroan ere, Nafarroa Bai koalizioan, emaitzak onak izan dira.

Bidea markaturik dago eta gure eginkizuna, behin-behineko hauteskunde-emaitzen gainera, aurrera jarraitzea da. Emaitza horiek ez gaituzte nahasi behar, egun egoerari buruzko diagnostikoak indarrean jarraitzen baitu: euskal gizartearen erabakiaren errespetuan oinarrituko den elkarbizitzarako hitzarmen berri baten beharra.

Benetakoa izan nahi duen edozein demokraziak proiektu politiko guztiak baldintza-berdintasunean eta bide baketsu eta demokratikoen bitartez gauzatu ahal izango direla bermatu behar du, eta hori oraindik orain derrigorrezko eskakizuna da.

Uste osoa dugu eta ez dugu inolako zalantzarik erabakitzeko eskubidearen aldeko gure aldarrikapena printzipio demokratiko bat dela eta Europar Batasunean lekua daukala. Eta euskal herritarrok ere berandu baino lehen erabiltzeko aukera izango dugula. Europako errealitateak erakusten eta eskatzen digu.

Ezer ez da posible izango, hala ere, indarkeria, fanatismo eta intolerantziaren bitartez. 2008ko Aberri Egunean eskubideen urraketa guztien desagerpena, baldintzarik gabe, exijitzen dugu berriro ere, eta bereziki bizitza-eskubidearena, duela egun gutxi gure herrikide bati kendu zaiona.

ETAren dogmatismo irrazionala, aurkari politikoaren jazarpena eta ezabapen fisikoa, oztopo nagusia dira Euskal Herriaren nazio-
eskubideen defentsa zilegirako. Eusko Alkartasunarentzat baztertu
ezineko eskakizun etiko eta politikoa da independentzia soilik bide
baketsu eta demokratikoak erabiliz defendatu eta aldarrikatu dadila.

Euskal gatazka politikoa bere azkeneko fasean sartu da euskal
gizartearen gehiengo zabal batek printzipio demokratikoaren
errespetutik eta borondate politiko argi baten bidetik erabat posible
den irtenbide bat eskatzen duelako.

Bakea eta normalizazio politikoa guztion zeregina dira eta Eusko
Alkartasuna modu zeharo desinteresatuan murgildu da horretan
distentsiorako eszenatokiak eta elkarrizketarako bideak sustatuz.
Baina herritarrok gara ere bai, gutariko bakoitzak, hain handia den
helburu hori lortzeko lanean inplikatu behar dugunok. Horregatik,
data sinboliko honetan dei egiten diegu euskal herritar guztiei gu
guztiona den erantzukizun hau beren gain hartzera eta guztion
artean gure herriaren etorkizuna eraikitzen.

Guk ordezkatu eta egiten dugun gizalegezko abertzaletasunak
askatasuna du erreferentetzat. Euskal Herria indartsua izango da
nazio baten parte direla sentitzen duten eta beren etorkizuna
demokratikoki erabaki nahi duten herritarren borondate askea
aintzat hartuz gero.

Bazterketarik eta desberdintasunik gabeko etorkizun hobe baten
alde lan egiten dugu. Erabakitzen dugun gaitasuna aldarrikatzen
dugunean ez gara pentsatzen ari euskaldun guztien eguneroko
bizitzatik kanpo dagoen botere batean. Eskatzen dugunak harreman
zuzena dauka gure eta gure herrikide guztien eguneroko beharrekin.

Erabaki nahi dugu hobeto bizi nahi dugulako, Ongizate Estatua indartu nahi dugulako. Zenbat eta autogobernu handiagoa, orduan eta bizi-kalitate handiagoa. Azken 30 urteotako irakaspena da eta orain, XXI. mendeko Europan, beste aurrerapausu bat emateko aukera dugu egunez egun gure bizitzan eragina duten erabaki guztien protagonista zuzenak izateko. Autodeterminazioa, are gehiago, independentzia, aldarrikatzen dugu eskubidea dugulako gizarte-prestazio hobekak jasotzeko, Osasun eta Hezkuntza sistema hobekak izateko, pentsio altuagoak eta seme-alabengatik laguntza handiagoak kobratzeko, azpiegitura hobekak edukitzeko... Bakarrik autogobernuak, erabakitzeko gure boterearen aitortzaren bidetik, bermatzen digun ongizate maila handia, alegia.

Herri libreen Europa batean bere tokia izan behar duen herri bat osatzen dugu. Eusko Alkartasunak helburu horrekiko konpromiso osoa hartu du eta Aberri Egunaren ospakizunak gure konpromisoa berritzeko aukera ematen digu. Eta gure sorrerako helburuaren alde, autodeterminazio eta independentziaren alde, lanean jarraituko dugula esateko, nazio-erakuntza prozesuan egunez egun lan egitea eta eguneroko arazoei erantzutea ezinbestekoa dela ahaztu gabe, ez eta herritarren askatasunak eta eskubideak babestu behar direla ere, edozein mehatxu edo urraketari aurre eginez.

Eusko Alkartasunak ez du atzerapausurik emango orain arte erakutsi duen ibilbide zintzoan, beti injustiziaren, intolerantziaren eta zapalkuntzaren aurka. Eusko Alkartasunak, orain arte bezala, edozein inposaketaren aurka eginez jarraituko du; eta euskal gizarteak bere borondatea adierazteko eta bere etorkizuna nola nahi duen esateko eskubidea duela aldarrikatuko du. Eta, bere erabakia bata ala bestea izan, guk errespetatu egingo dugula.

Euskal Herria. Aberri Eguna 2008